

BIZKAIKO HERRI-IPUIN IDATZIAK

Donostia, 1992-III-27

Xabier Kaltzakorta

Aspaldi ez dela Orozkoko auzo batean ipuin batzen nembilela baserrietxe bateko atea jo nuen eta bertako ugazabak irten eta zer asmok nenkarren esan ostean hauxe erantzun zidan:

—Kanpoan hotz dago, ni ez naiz ipuintsua baina sartu epeletara!

Abenduaren hasierako egun hotz eta argi bat zen eta gogoan ondo josita daukat haize hozminak arnasa ere lurrundu egiten zidala. Baserriko nagusiak esandako modura baserrira sartu eta sutondoan jarri ostean eguarte guztian ekin zuten senar-emazteek ipuin kontari.

Harrez gero beti pentsatu dut ipuinak ez direla hotzaren lagun, puinak ez direla hotzetan esateko kontuak, ipuinaren babes, izatea eta ingurua berotasuna, hurbiltasuna dela eta berotasun hori sutondoko berotasun gozoa ezeze bihotzaren berotasuna ere badela.

Neguko egun hartan baserri atarian ipuintsua ez zela esan arren, sutondoraz gero ipuintsu bihurtu zen gizona sutondoko garretan dantzan dabiltzan pamerial berriketariek aho-bihotzak berbaz bete balizkiote legez.

Jazoera horrek berbabidea emanik neure jardunaldi honetan Bizkaiko ipuinen berezitasun batzuk aitatu nahi nituzke eta azkenik ipuinok non aurkitzen diren adierazi, hau da nolabait esateko Bizkaiko ipuintegi idatzi bat osatuko balitz zein izango lirakekeen iturri nagusiak.

Lehenengo eta behin neure gaia Bizkaiko herri-ipuin idatziak da eta ipuin hitzak euskaraz eremu zabala dauka benetan. Kontuan euki dezagun ipuin hori hemeretzigarren mendean alegia esateko ere erabiltzen dutela idazle askok.

Aurretik daraman herri delako horrek hitzak daukan eremu zabala mugatzen du ezpai gabe, baina, herri-ipuinak ote dira, kasurako, Kirikiñok, Errose Bustintzak (Mañariko), Felix Bilbaok, Bitañok, Augustin Zubikaraiak, Juan Jose Arrizabalagak idatzi dituzten ipuinak?

Edota beste era batera galdera eginez Xabier Amurizak Bizkaian bildu eta era errazago batez euskara ikasten ari direnentzat baturatu dituen ipuinak euskal-herri ipuin idatziak ote dira?

Jakina, askotan herrian jazotako pasadizu barrengarriak dituzte ardatz nagusitzat, bestetan entzundako jazoerak ederturik agertzen dira eta Errose Bustintzaren kasuan berak entzundako sorgin-lami(n)a-lapurren istorio miragarriak euskera idatziaren era landuago baten bidez agertzen dira, baina kasu guztietan idazlearen lumak orraztuta agertzen direnez ipuinok herri-ipuinak ote dira? (1).

Guk hemen geure saiotxo honetan gordin-gordinik, idazlearen lumak orraztu gabeko ipuinak, ezpainetatik harako ipuinen berri emango dugu.

Ipuin deitzen dugun hori esangurarik zabalenean hartuko dogu, hau da, alemanak *märchen*, erdaraz *cuento maravilloso* eta euskeraz *ipuin mirengarri* edo *amandre ipuina* alde batetik eta *kondaira* edo *esaunda* eta *pasadizu barrengarri* eta *animalien ipuina* bestetik.

Hemen ipuin kontalariari emango diogu lehenetasuna eta ez idazlearen lumari nahiz eta askotxotan idazleak ipuin kontalariaren ipuina ederetzen edo itxuratzen duen.

Esan dezagun markatutako lorratzari jarraituz badaukagula aspalditxotik batez ere Bizkaian kontatzen diren ipuin moeta baten berri, esango genuke ipuin sail bat dela, pertsonaia nagusi biren inguruan matazatutako edo eratutako ipuin-saila, uste dut gehienok ezagutzen dituzuela: Peru eta Mari(j)aren ipuinak. Ipuin sailaren kontzientzia argi ikusten da, besteak beste, argitaratzen direnean askotan pertsonaia nagusien izenarekin argitaratzen direlako, gero emango dugun bibliografia aipamenean ikusiko dugunez.

Joan den mende hasieratik, barbarako, hona zer dioen Juan Antonio Mogelek Peru Abarkaren ahotik:

Seme bata eskolauba da, liburu zalia: badaqui erdera, ta eusqueratuten deuscuz, gaba igaroteco, iracurri dituban ipuinak, baña ipuin onac, garbi ta iñoren calte bagacuac.

Egoten gachacoz auac zabalic enzuten; ume chicarrac Peru ta Marijaren ipuin gatz bagaac enzun daruazan garrac. Lengo egun baten berac buruz icasita, esauscun ipuin chito eder abade batec imini ebana verba neurtu ta soñutubaz (2).

(1) Guk orain badakigu horiek erdi-ahozkotasunaren eremukoak ditugula, ez direlako gordin-gordin entzun bezala traskribituak, ikus LEKUONA, Juan Mari "Erdi-ahozkotasunaren literatur estiloaz", *Euskera*, 1989, 1, 17-44 orr.

(2) MOGEL, Juan Antonio: *Peru Abarca*, Bilbao 1881, 95-96or.

Beraren loba den Bizenta Mogelek ere antzerako berbak egiten ditu:

Umeago nintzanean berriz enzun oi nituen, zoro zororik, ta pozez erotuta, atso-ipuiak. Sinisten nituen eguia andi batzuek becela, *Peru*, ta *Mariaren* ipui farragarri, ta sustrai gabeac: enzunac enzunda ere, aspertu egin nintzan ta paquerik ematen ez nien atso gaissoari berriz ta berriz esateco alaco ipuiac. Au da aur guzien gaitza, edo zorasuna.

Orain bada, *londoric*, ta ondorengo onic ez cecarten ipui eroac ainbat atsegin ematen bazidaten, nere adinaren argiabarretan sartu baño leenago, cembat eztitu ez zan nere biotza iracurri nituenean gerora ipui onac? (3).

Osaba-lobak berba garratzak erabilten dituzte Peru eta Mari(j)aren ipuinak aitatzen dituztenean: *ipuin gatz-bagaac*, *ipui farragarriac*, *atso-ipuinac* eta alegiak, ostera, ipuin ontzat dauzkate.

Baina ez dira bakarrak izango era horretako eritzietan, hona, esaterako, Jaun Mateo Zabalarena ere:

“Baakit nik geure euskaldunak ipuinzaleak direala. Gogoan dot oraindi zelan umetan entzun eroaguzan aoa zabalik, eta adurra erigula, Peru eta Mariaren ipuin sustraibakoak. Oraingo oneek dira sustrai andikoak, mamin ederrekoak, eta on eta onura zabalekoak, alan balira geiago (4)”.

Añibarrok ere badauka bere hiztegian ipuinsail edo ipuinmota horien gaineko aipamenik eta hona Mitxelenaren oharrez jantzia:

“Humboldt-ek dioenez, eta 1800 inguruko kontuak dira, baziren Euskal herrian ezin konta ahala ipuin, zikloetan bereziak eta partituak. Bat bederak ba omen zuen, gainera, bere forma berezia. Ez omen zitezkeen behintzat itzuli zuten grazia galdu gabe. Zein zuen direlako zikloak eta nola kontatzen zituzte? Ez dakigu ongi, baina, nolana ere den, lor dezakegun jakitearen mugarriak hobeki landatuak geldituko lirateke, saioen bat edo beste eskaintzen bagenia.

Hor ditugu, esate baterako, Peru eta Mariaren ipuinak, eta Aita Villasante izan da, noski, azkenik horien berri eman duena. Irri eta haur gisa agertzen zaizkigu orain, baina bada argibide bat bederen besterik adieraz dezakeena. Edo ipuin horiek ez ziren inoiz oraingoan irudiko, edota 1800 inguruan idazten zuen norbaitek ez zekien ongi zer ziren Peru eta Mariaren ipuinak. Seguraski, gainera, ez zitizkion gehiegi axola.

(3) MOGUEL, Bizenta Antonia: *Ipui onac*, 1804, 10-11or.

(4) ZABALA, Juan Mateo: *Fábulas en dialecto vizcaíno*, argitaralpena klasikoak euskal editoreen elkartea, 33-34 or.

Behin baino gehiagotan hartu dut ahotan, Larramendik “Suplemento” -an dakarren “muerte, *balbea*” dela eta, harako Añibarroren hiztegi-ko pasarte hura: “Muerte activamente: c. erioa. En los cuentos de Peru y Mari, b. *balbea*. Muerte: c. eriotza” (5)”.

Badakigu, beraz, badirela euskal idazleen testigantza arabera Peru eta Mariarenak deitzen dan ipuinsail aberatsa eta duda jartzen du Mitxelena ez ote diren guk ezagutzen ditugunetatik apur bat desberdin. Ipuin horienganako muzin eta erdeinua mende honetan ere erakusten du Azkuek:

“Beste zerbait. A) Eriak ipuinai, geien geienai beintzat, eztie izenik emanten Baizkai ta Gipuzkoan maiz entzuten da ipuin izentzat *Peru ta Maria*. ¡Amaika Peru ta Maria entzun ta esan ere izango genituen umezaroan!

Izen ofegaz bi baizik ez tira ageri gure liburu onetan. Beste guztiak aurkeriatxoak baizik ez ziran (6)”.

Hau da, Azkue handiak bere 241 ipuineko bilduma ederrean bi ipuin besterik ez ditu ekartzten besteak haurkeriatxoak direlakoan.

Ezagutzen dugun Peru eta Mariaren lehen ipuina joan den mendekoa da eta *Euskalzale* aldizdarian agertzen da esandako ezaugarrien berri berriro emanez:

“Irakurburu (Peru ta Maria) onegaz ants*inako ipuin geienak, geienak gatz bagadoak, egiten zirean. Ipuin au Markiñar agura zaar batek geuri esanikoa ta gure irakurla guztien gogokoa izango dala uste dogu (7).

Beraz esan dezakegu ipuinsail hau ez dala papereratu, ez dela aintzat hartua izan, oraindik ere paperera agertzeko ohorea ez duela izan. Hala eta guztiz ere aurki daitezke sakabanatuak mordoskadatxo bat, hona hemen non aurkitzen diran”:

“Peru ta Mari”, *Euskalzale* 1989, III, 13-14, 23-24, 31or. (8).

“Tira Peru”, *Euskalzale* 1897, 28a eta ipuin bera “Urkiolako Igarlea” *Ipuinak*, Editorial la Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao 1968, 22-40or.

(5) MITXELENA, Koldo: “Euskal hizkera eta Euskal neurkera” *Euskera* (2.aldia), XXII, 1977, 721-723or. eta *Sobre Historia de la Lengua vasca II* Donostia, San Sebastian 1988, 704-712or.

(6) AZKUE, Resurrección María: *Euskaleñaren Yakintza II* Cuentos y leyendas, Espasa Calpe, 14or.

(7) IZENIK BAGE: “Peru ta Mari” *Euskalzale*, 1989, III, 13-14, 23-24, 31or.

(8) Ipuin hau Azkuek (semea) idatzia dela esan genezake, nahiz eta oinarria herri-ipuina dela argi ikusi. Idazlearen lumak edertua dela argi ikusten da. Azkue aldizkariaren zuzendaria izan zen eta berak sartu zuen bere izenik jarri jabe, baina *Ibaizabal* aldizkariaren ere ipuin bera agertzen da (*Ibaizabal* 2. urtea 67gueia, 2, 2.urtea 68 gueia, 2urtea 69gueia) Eketa izengoitiarekin, eta izengoiti horrek egilearen izena salatzen digu: Resurrección María de Azkue. Aita Onaindiak ere Azkueren ipuinez egindako bilduman ere agertzen digu ipuin bera.

Azkue, Resurrección María: *Euskaleñaren Yakintza II.*

“Peru eta Maria”, 290-293or., n.º 102.

“Peru eta Maria”, 294-295or., n.º 102.

Euskadi, 1932, 5-7, Biltzailea: Ete.

Elkorrazpi: “Peru eta Marixe”, *Karmel*, 2, 1970, 70-73or.

Pertika, Jon Martin: “Peru eta Marixe”, *Egan*, enero-diciembre, 1972, 65-70orr.

Urügüena, Mari Karmenek bildu eta transkribatua, *Idatz eta Mintz* aldizkarian, n.º 15:

“Peru eta Marixa”, 24-25or.

Idazkera liburuan Udako Euskal Ikasturte ariketan-4.

“Peru eta Marije”, 97-98or.

“Peru eta Marije”, 105-106or.

Ipuin sailik handiena Teri Ibarrolak kontatu eta Aita Villasantek *Aranzazu* aldizkarian agertua da, “Euskalerriko ipuiñak” sailean. Idatziz agertzen diren ipuinok magnetofono hartuak dira baina Peru eta Mariaren ipuinak aspaldi kontatzaile honek beronek grabatuak ditu diska batean Juan Sanmartinek gogoratzen digun bezala (9):

“Peru eta Marixena”, *Aranzazu*, 1964, 10-11or.

“Peru eta Marixe”, *Aranzazu*, 1964, 23 (54)or.

“Peru eta Marixe”, *Aranzazu*, 1964, 30 (222)or.

“Peru Londresen”, *Aranzazu*, 1964, 31 (351)or.

“Erbi Jakituna”, *Aranzazu*, 1965, 23 (87) - 25 (89)or.

“Orratz, orratz, orratz...”, 1965 24-25or.

Peru eta Mariaren ipuinak ardaztat arturik *A.S.J.U.*, 1985 urtean ere Jesus Antonio Cid eta Joseba Andonio Lakarraren lanak ikus daitezke. Zubikarai, Augustin.: *Peru eta Mari gureak*, Argitaldaria Gaubeka, 1985, 224or.

Liburua hogei ipuinez osatua egon arren ez dira guztiak Peru eta Mariaren ipuinak, azken aurreko ipuina baino (10). “Peru eta Mari ondarrutarrak’ delakoa, ipuin hori ipuin bildumatxoa da, hona hemen zatiak:

a) Peru umezain.

b) Peru amugiña.

(9) San Martin, Juan: Horrelako ipuinez, Peru ta Mariarenekin, Teri Ibarrola aulestiarak bi diska argitaratu zituen Columbia etxearen bidez, duela dozenaren bat urte, eta haur euskaldunek harrera ona egin zioten. Merezki lukete berriz argitaratzea. “Ipuinen eremua (II)” 1979-VII-2. *LANDUZ gure herriko gauzak* 213 or. Gipuzkoako aurrezki probintziala 1983.

(10) Hona idazleak emoten dauan azalpena: Gure erria ipuinez beteta dago. Zeiñek gogoratu ez bakoitzaren umetakoak?

Kezka barik gebiltzanean, atsegiña billatu ni izaten ba gendun, edo bare-aldia, zelan gura ez kezketan ia itota eta usterik gitxienean atsekabez beteta itxartu eta lotaritzen garean denporetan?

- c) Peru kanposantuan.
- d) Mari antxoei burua kentzen.
- e) Peru eta Mari errietan.
- f) Uretatik ataraten.

Gipuzkoako euskeraz gutxiago aurkitu ditugu baina: *Etxebarria, J. M.*: "Legazpiako Telleriarteko ipuinak", Anuario de Eusko Folklore.

Baina Peru eta Mari(j)(a)ren gainean ez daude ipuinak bakarrik, Peru eta Mari(j)(a) batez ere senar-emazte ganoregabekoen eredu txarra direnez erretrauetan eta kopletan ere ikus litezke izen biok uztartuta, kasurako, jarri ditzagun Azkuek dakartzanak:

Maria bakarrean

- 125. Alper da Maria makilatu, ezpada berez biurtu.
Alper da Maria makilatu, berdin berez behar du.
Uriartek azken esera hau batu zuen baina "berdin" barik.
Arpel da Maria makilatu, ezpada berez bedinkatua.
- 149. Bein Maria elizara eta bertan eperdiaz altarara.
- 152. Beti Maria goruetan bear eztiran orduetan.
- 182. Gure Mariak ohiko ariak.
- 196. Iru biko, Maria zulo biko.
- 200. Lar dira Maria gona bi; erantzi bei batorri.
- 208. Mari eder bistako, bat ere ez geroko; espartin zuriak papez, zuria denean baterez.
- 210. Mari bitxigina, sua da ogigina.
- 213. Maria gurea gorule gaizto, aren atofeak zulorik asko.
- 214. Mari gurearen bafiak ezerbere ezak gustiak.
- 215. Maria makilatua, berez bear dafatua(sic).
- 216. Maria, ofatz eta haria.
- 217. Maria zelako, odolkia alako.
- 218. Mariena, atzetik dandaña dariena.
- 124. ¡Ai Peru Peru! beti su alpeña; etxatzu faltako alkondara zafa.
- 151. Bete betean, Peru atean.
- 161. Egin eginean Peru atean.

Peru eta Maria uztartzen dituztenak:

- 232. Nolako Maritxo, alako Perutxo.
Nolako Mari, alako Peru.
- 233. Nolako Peru, alako Mari (11).

Lengo ipuiñak ametsetan sortuak ziran geienak.

Gaurkoak, bizitzako irakatsietatik aukeratuak dira.

Batzuk bizi egin doguz eta gure artean ezagutu. Ikusi eta ikasi. Eta esan, edo ta idatzi. Nai eta negar egitekoak gertatu, atsedena ekarten dautse gogoari kontakizunak.

Origaitik eta orretan dator gaurko *PERU ETA MARI, GUREAK*, liburu au. 4or.

(11) AZKUE, Resurrección María: *Euskaleñaren Yakintza*.

Azkueren bildumatik gainera beste esaera bilduma batzuetan ere aurkitu daitezke:

Amá ta aité
Pèrú ta Marije (12).

Inoiz edo behin esaera artean agertu arren ipuin puska zentzu gabea dirudi, hau da bere testuingurutik ateratako esaldia ikus esaterako honako hau:

“Ene Marija, ondo da bata bestiagaz. Ene Peru, doyela mutilla kalaba-ziagaz (13)”.

Baina jakina ez da derrigorra Peru eta Mari uztartzea holako erre-frauetan. Bizkai-Gipuzkoetatik kanpora beste bikoterik ere aurkitzen da:
231. Nolako Juantzar, alako Martizar.

Dantza koplá ezaguna eta *Euzkadi* egunkarian lo-kantatzat agertzen dena esaterako:

At*it*a ta amama
basora juan dira.
azkoria galduta
asafatu dira.
Amamak at*it*ari
belafit*ik tira,
at*it*ak amamari
kopetetik tira,
alkáfenak dira-eta
konponduko dira (14).

(12) UETENA TALDEA: “Bermeoko esaerak, atsotitzak, hitz jokoak eta kantak” *Bermeo*, 6. 1986-1987 115-135orr.

(13) LARRAÑAGA, Eulogio: “Refranes y dichos populares” *Anuario de la sociedad de Eusko Folklore* 1921 54or.

(14) ZALDUA, Miren Aguíne “Euzko Erri -Jakintza” *Euzkadi* Abuztuaren 13 a 1932 6or. Lo-kanta haueetatik gehien gustatu zitzaiona Lauaxetari azkena izan zen hona hemen olerkariaren oharra: Azkenengo abestitsu au polit-polit*a dozu. Olako asko batu biar doguz, ¿Lagunduko dauskuzu, ezta? Abefiaren onerako dira -ta. Efiko atsuakin ibili igande afatsetan, ¿bai?, eta ikasiko dozuz abesti txukunak-*Lauaxeta*. Op. cit.

Aizkora galtzea eta haserretzea koplá askotan agertzen da hona hemen esaterako Eulogio Gorostiagak dakartzanak:

80 Atsoa ta agurea,/Etxe txiki baten,/Agoardientea saltzen/Pitxer txiki baten.

81 Atxoá ta agurea/Biek egufetan/Askorea galdute/Dabis bafiketán. Batek baino gehiagok *berriketan* ulertuko luke hizketan baina hona beraren itzulpena:

Anciano y anciana/Los dos por leña (han ido);/El hacha perdida/Andan riñendo (después que han perdido), Gorostiaga Eulogio: “Canciones coreográficas” *Eusko Folklore* 22-23or.

Eta Augustin Zubikaraik dakarrena:

Peru eta Mari
biak egurretan
aizkorea galduta
biak errietan! (15).

Hona hemen *Euzkadi* egunkariko dantza koplá bat:

Dantzan, dantzan
dao (?) Peru,
Peru ta Marije ezkondu.
Peru ta Marijen eztegubetan
arto berua jan dogu (16).

Eulogio Gorostiagak ere bildu zuen antzekorik:

—Iru arkondara dituzu, Peru.
—¿Non dodaz ba, Marie?
—Soñen daukozun zartxo ori,
eiteko dutzudan bafie,
eta irugañena egiteko,
kaxa zañean azie (17).

Baina herri-kopletatik kanpora ere izan dira Peru eta Maria gaitzat harturik bertsoak sortu dituzten idazleak ere guk hemen biren aipamena besterik ez dugu egingo bata Kepa Enbeitak, Urretxindorra (*Euzkadi*, 1915-IV-13) eta Bizargin bat izengoitiz Ibaizabal 2 urtea 63 gueia2, 3or.

NON AURKI LITEZKE EUSKAL-HERRI IPUINAK

Hemeretzigarren mendean era bateko eta besteko ipuinak ahorik aho ugari dabiltzala adierazi arren euskal idazleek eta atzerritar euskalza-leek ez dugu aurkitzen ipuina gordinik, hau da apaingarriri gabe pape-rean bilduta. Joan den mende amaieran Euskalzale aldizkarian agertzen diren ipuinik gehienak idazle--ukitua daukate. Behin bakarrik aurkitu dugu ipuin bat norbaiti batua edo norbaitek kontatua dala. Inoiz kontala-ri baten ahotik batutakoaren itzulpena ere agertzen da esaterako Wentworth Webster-ek Lapurdin batutako ipuin baten bizkaierazko itzulpen

(15) ZUBIKARAI, Augustin: *Peru eta Mari, gureak* Gaubeka irarkola 1985, 195or.

(16) L'tar K.: *Euzkadi* 8 noviembre 1932 Uafa-"Ama zeuriak neuri" deritzan bertzua, Lektion musika politagaz safi entzun dot.

(17) GOROSTIAGA, Eulogio: "Un aspecto de la vida popular en el Señorío de Vizcaya" *Euskalerriaren alde* 1929 Tomo XIX 345-346 or. "Al reunirse los vecinos a deshojar las mazorcas de maíz, allá en otoño, se entretienen con berso beñiak; se oyen curiosos diálogos, y de vez en cuando algún cantar como éste.

bat agertzen da (18). Ipuintzat agertzen diren ia guztiak izenpetuak dira. Mende honetan ostera aldizkari eta liburu batzuetan sakabanaturik argitara eman diren Bizkaiko erri-ipuin gordinak, ezpainetatik harakoak non aurki litezke? Ez da lantxo honen helburua idatzitako Bizkaiko herri-ipuin guztien topalekua ematea, pozik geratuko nintzateke ipuinik gehien nundik norakoa emongo banu, hau da Bikaiko ipuintegi osatzeko bidea emango banu. Jakina da liburu iturri nagusiak Azkueren *Euskalefiaren Yakintza II* eta Barandiararanen idazlan osoetako bigarren liburua direla (jakina bigarren tomotik gainera ere agertzen dira beste tomo batzuetan baina ez neurri berean); baina horietatik aparte hona hemen beste iturri batzuk:

Azkue, Resurrección María: "Lamiak Euskalefian", *Euskera*, 1927, n.º 8, 91-115or.

Rollo, William (1892-): *The Basque Dialect of Marquina*. Amsterdam: H.J.

Paris, 1925 (XI-105-27-24 pp., 25 cm).

William Rollo eskoziarra Markinaldean bi udalditan izan zen eta bertako euskararen gainean egindako ikerketan Markinako euskeraz etnotestu eta ipuin batzuk batu zituen. Azkuek eta Rollo euki zuten eztabaida hizkuntzaren gainekoa izan zen (19), horrezaz ostean Azkuek ederretsi zien Rollok batutako ipuinei (20). Hona hemen batu zituen testuen zerrenda:

- a) Markiñeko errixe.
- b) Ezkontse bat.
- c) San Migel Arretxiñakue.
- d) Alarabie, gigantien eta gison- jatallian ipuñe.
- e) Euliski giantie.
- f) Lamiñek.
- g) Lapramendi atsue.
- h) Marixe Kobauko.
- i) Barrueta-torreko arrtulaue.
- j) Atxondoko neskatillie.

Guzti hauek, esan dugunez, Markinako euskararik ederrenean daude batuta, batzuk deskripzio hutsak dira, esaterako, kontatzen da zer nolako herria den Markina, nolako harriak diren Arretxinagakoak eta abar, baina, Lamina ipuin eta Maria Kobauko horretaz landa interesgarriena nire ustez berak *Alarabie, gigantien eta gison- jatallian ipuñe* eta *Euliski gigan-*

(18) "Antxinako ipuin bat" *Euskalzale* 1989 II 283or.

(19) "Contestación al juicio crítico del Señor Resurrección María de Azkue respeto de *The Basque dialect of Marquina*" *RIEV*, 1926, XVII, 620-623or.

(20) AZKUE, Resurrección María: "Lamiak Euskalefian" *Euskera* 1927 n.º 8 91-115or. h o.

tie direlakoak dira. Biak daude Markinan batuta eta badago bategandik besteagana alderik. Bata: erraldoi edo digante gaiztoa eta begibakarra da eta bestea ona eta mesedegilea. Erraldoi begibakarra gaiztoa da *gison jatallia* edo *gison jaillea*, erraldoi horren berri badaukazue jardunaldi honetan kontatu izan delako, baina begibakarra izateaz gainera badu beharbada berezitasun handiago bat: hanka bakarra dela eta euria egiten duenean hanka jaso eta estalgarrizat darabilela, era honetako erraldoiak nekez aurkitzen dira euskal ipuinen artean eta Juan Gorostiagak badu argitasun haundi bat honen gainean, hona hemen beraren hitzak:

“ALARABE, monstruos, genio de la lluvia.

Leyendas de Marquina de Vizcaya. Monstruo de ‘un solo pie’ que cuando llueve lo levanta y se guarece bajo él. Interferido con el cíclope ‘de un solo ojo’. Tiene traducción vasca de EULIZKI (Eul-residuo de EURI ‘lluvia’ a cf. EUL-ANTZA en la misma Marquina), pero la etimología popular le ha convertido en ‘mosquero’ tragador de moscas, pues agachándose sobre sus ‘dos pies’ colocados en las montañas vecinas traba las barcas, como si fueran moscas (EULI ‘mosca’).

La palabra proviene directamente del español ALARABE —no de ALARABI en árabe mismo—; la forma ALARABIE de Marquina supone un ALARABE-A y no ALARABI-A, como mal se interpreta.

De tales monstruos también hablaron los grecolatinos, pero esta vez se trata no de marinos de mares afrinos, sino de Vikingos que asomaron sentados por un solo pie. El HURACAN de los Mayas es de ‘un solo pie’ como el TEZCALIPOCA de los Aztecas también de un solo pie, mientras que el ‘terremoto’ era ‘de dos pies’.

Adam de Bremen recoge en estos relatos nórdicos y dice también como Hispanos (¿árabes?) y Griegos acudían a las islas de los oráculos como Kurlandia. Nótese que también en Grecia el genio de la lluvia es ‘el árabe’ (21)”.

Alarabe honen berri ere Barandiaranek ere ematen du hona beraren hitzak:

“En las cavernas abiertas en las desnudas peñas de los montes vascos vivía en otro tiempo Tartalo, monstruo antropófago de un solo ojo en la frente, o el terrible *Alarabi* de las leyendas de Markina, de un solo pie de forma redonda que, levantado en el aire cuando llueve, le sirve de paraguas (22)”.

(21) GOROSTIAGA, Juan: “El fondo primitivo de la lengua vasca” *F.L.V.* 1982 116or.

(22) BARANDIARAN, José Miguel: “Nacimiento y expansión de los fenómenos sociales” *Anuario de Eusko Folklore*, 1924, 169or.

Barandiaranek Alarabe(23)-ren berri Rollok bere lana argitaratu baino urte bete lehenago ematen du, hau da, 1924an baina zorritzarrez ez du ematen euskarazko ipuinik. Zeintzuk dira beraz erraldoi horren gaineko ipuinak?

Nik bi herri-ipuin ezagutzen ditut bata orain arte esandakoa eta bestea Aita Villasantek Markinan bertan batua eta *Aranzazu* aldizkarian 1965an argitaratua:

Ipuinen artean nire ustez ederrena eta interesgarriena erraldioen gainekoa da, ipuinotan erraldoi biren berri ematen delako: bata erraldoi edo digante gaiztoa eta begibakarra da eta bestea ona eta mesedegilea. Hona hemen William Rollo-renak:

ALARABIE, GIGANTIAN EDO GISON-JATALLIAN IPUÑE

“Sekendixokò medixen, Marrkiñeko lurraldien bisi san gison bat, gison-jallie, Alarabie esatejakona. Anka-bakarra ta begi-bakarra san, eurixe sanien bere oñas estaltxen san. Arrtsañe ta arrtaldi aundixan jabe san. Kobau baten bisi san eta kobauan atetsat arri aundi bat euken. Inguruko billurgarrixen san Alarabie gison-jallie salako. Bein, gison errbesteko batek Sekendixoko menditik joyela aurrrkit*uban Alarabie arrdi Sañen. Errbestekuek, gison aifñ aundi ta itxurabakue ikusirik, billurrute gatu san. Alarabiek ikusibanien gisona besuas ‘onako’ bat eitsen ber onda juteko. Iker--ikera eldu san gisona Alarabiana. Onek aind*ueutsen arrdibatsen ea etxa eruten laguntseko, gero alkarras apaldukobela ta. Alantxe einben. Sarrtuxit*uen arrdixek kobauen, itxi ban Alarabiek atie arri auyndixas eta ai san aparixe gerrtetan. Ene! errbestean ikerie, ikusibanien Alarabiek gison-ankie burrdutsixen sarrtute sugañien ipiñibala erretan!

Orrduen esaban beretsat: ‘Onek gisaragixe jaten dau ta siurr neu be ilgo nau’. Alarabiek ostera beutsen anka –erretiai, eta beifñ errebanien ataban maire ea burrduntsixe kendute asi san setsen. Errbestekue saifñ euen; eta Alarabie albora begire euen baten, arttuban burrduntsixe ta tsimistan sarrtutsen begi bakarretik eta biskorr sarrtu san arrtaldixen. An

(23) ALARABE da itxura guztien arauera hitza eta ez Alarabi Mitxelenak BAP 1960 378-379 dioenez: *Tartalo es tartaloea*” el tártaro” y *alarabi* (véase p. ej. W. Rollo, *The Basque Dialect of Marquina*) alarabie “el alárabe”. Hizkuntzaren gaineko argibide guzti hauek biltzen ditu Oratariko Euskal Hiztegiak Alarabe hitzean: “El terrible *alarabi* de las leyendas de Markina, de un solo pie de forma redonda (como los esciápodos clásicos) que, levantando en el aire cuando llueve, le sirve de paraguas JMB AEF 1924, 169.” Alarabi(e)” BAP 1969, 379.

Etim. Cast. alárabe “hombre inculto o cruel!” además de “árabe”. BAP 1960, 379. JMB Obras Completas I 22s (Marquina, Arratia). No es alarabi, aparentemente indeterminado, como sugiere JMB. Se usa siempre con art. -arabi<-bie<-bia<-bea.

ebillen Alarabie itsutute miñes eta amorrus garrasi baten, jo batera ta bestera erbestekue atrrapau naixen, bañe esiban. 'Arraixuoi! atrrapau-kaut ba' esanda Alarabiek, sabaldu ban atie. Arrdixek asi sien bananbanan, oi ben les, urrtetan eta Alarabiek, atien jarritxe arrtsesit*un bananbanan eta jaurtsesit*un kampa. Jakin banien erbestekuek Alarabian asmo okerra pentsau ban arrdi narrus jastie; eta kobauen esegitxe ainbat arrdi narru euen les, laster arrdi narrus estaldusan. Gero sarrru san arrdiden erreskadan eta lau oñien eldusan ateraño.

Alarabiek txarrik susmau barik arrtuban gisona ta arrdixe salakuen jaurrti ban kampa. Orrait*o bota ta berrtatik konturatu san arrdixek bañe astunaue sala ta esaban; 'ontse galdu nok, oixe isok neure arerixue'. Desesperaute sarrru san kobauen. Errestekuek arrtutesan arrdi gustitek eta Alarabie goses kobauen il san."

EULISKI GIGANTIE

"Antxiñe Markiñen gison aundixek eisien, batesbe bat Euliski eritxona ta Xemeingañien bisisana. Diñunes, Euliski egarri sanien anka bat Oisen eta bestie Maxen ipiñit*e itxosuen ure erateban.

Euliski (bere isenak diñunes) euli atrrapatsallie san. Beñ oiban les ur erata joyela ikusiban Debako itsosaldien baltsunetsu bat eta eltxon bat salakuen-Jesus baten-iruntsiban... txalupa aundi bat gison da gusti. Euliskik selako burue euken ondo agiride burue Xemeingo Elixako ormonduen atsunde goiko bentanatik begi batas abadie ikustebalako mesie entsun gure banien.

Beste bein Marrkiñeko arotsak aits tantai bat bota ben gabi-arrdatsa eit*eko eta Euliskik gau aretan lotan euela iruntsiban gabi-arrdats-geixe eulixe salakuen. Urrengo egunein arotsak junsien tantaixe ekarrta baño sorunak eiñ arren, esan iñun agiri. Joben gero Euliskiñe onek sure nun euen etekixen jakit*era; Euliskik besteik esekixen gausan bat lotan eulixe zalakuen iruntsibala baño. Au entsun banien susmauben arotsak biserr arttien eukikobala tantaixe ta junsien Marrkiña kodoñak ekarrta Euliskik biserra ebateko. Iserrdis siets busti arte jarrdun arren araso onetan eta ogetamarr karabisentsat erregarrixe biserretan ebai arren, eseutsen topau aits tantaixe. Orrduen esaban Euliskik; 'itxiresue mutillak apurr baten, prrakak erasta najoyek eta etorri sait*ese bixerr; bierr-bada...' Alantxe einben arotsak eta urrengo egunien topau ben gabi-arrdats-geixe, Euliskik eulixe salakuen iruntsi bana.

Marrkiñarrak burruka gogorra beste erri batzugaz euken. Marrkiñarrak sintso jo arren, arerixuek asko sielako edo, estu ta larri aurrkitse-sien. Egun baten jakin ben koluna osue Oisen sierr etorrela Marrkiñeruts eta serr egiñ esekixela badoyes ariñ-aringe goiko metala Euliskii esata len-bai-len ata eixesela egoera larri aretatik, berak jasoalako saku urrie emongeutsela ta. 'Es billurru mutilla', diño Euliskik, 'laster eingu-jauu orrena'. Oinkada txiki batsa eldusan Iderra! jansit*un an inguruen

euesen okanak asur da gusti, ta andik orrdu bata, arerixuen kolunia agerrtusanien Errdotsaldien, arrtuban Euliskik arrnasa luse bat eta ara nun urrtetan daben beragandik segiduen eta bat-batera axe bolada ikerragari batek okan asurrekin nastien, eta arerixo gustixek, orrbel igerrak ego inderrtsuas les, etorri sien baño arinau surrumilluen junsien Oisen sierr aruts ...estakigu noraiño.

Marrkiñarrak poses birrlaraute, Euliskii berie emonbijakola ta, idi narru bi alkar josit* einben saku aundi bat eta urres beteta emeutsen Euliskii. Onek atsamar batas jasoban urre sakue ta geixa eskatu barik junsan goiko metala.”

Honatx Villasanterena:

“Markiñen lenago zan jentil bat. Eta beti bizi zan bera euliyekin, bierrik be ezeban egiten-da. Euliyek atrapau ta euliyek jan, ta lo egin Xemeingo elizako zelayen etzunda. Ta mezie be entzuten eban zutunik plantaute. Bentanie baiño gorago, andiyague zan, eta etzunde be eguela bentanatik ikusten eban altarie, ta andixik entzuten eban mezie.

Ta egun baten ekarri eben Ondarrura barkue egiteko killa aundi bat, arbola aundi bat. Ixango zan ba iru bat metro kubiko edo gitxie-nien. Ta illuntzien jun ziran etxera karreteruok. Eta biyamon goxien jun zien aritz ori, arbolori Ondarrura eruteko sei buztarri idi, ta ezeben arbolarik topau; baiña Euliski an eguen etzunde zelayen lo. Ta preguntau eutsen ia an ikusi ete eban alako arbola aundirik edo. Eta kontestau eutsen ezekiyela: an euli moltzo bat edo berak tragau ebala, baiña ezebala arbolarik ikusi berak. Ta orduan pentsau eben beran bizar artien eukiko ebala Euliskik ezkutauta arbola aundiyori. Eta iru gizonek bost egunien segakin, godaiñekin jardun eben beraan bizarrak ebaten, eta alan da guzti be ezeben topau. Eta orduan Euliskik esan eban ia berak euliyek jan zittun lekuen igual jan ein ixango ebala arbola andiyori; eta orduan asi zan beran bierrak egiten eta an asi zan arbola andiyori urteten. Eta gero eruan eben Ondarrure euren arbolori.

Ta beste baten Euliski jun zan Debara eta Deban ikusi eban txalupa bat itxoso egalien. Eta iru gizon egozan barruen, eta begitandu jakon euli moltzo aundiye zala, eta danak iruntsi ebazan kopau baten.

Eta gero ostera be etorri eta or ebillen Markiñe-aldien betiko moduen. eta markiñarrak euken desafiyo bat durangarrakin. Eta durangarrak asko gizon geyago zelan ziren, ba markiñarrak billur aundiye euken, markiñarrak ilgo zittuela eta Markiñegaz jabetuko zirela. Ea orduan jun ziren Euliskigana esaten arek durangarrak domiñetan bazittuen edo arei geiyago egiten bacutsen, iru idi narru bete urre emongo eutsezala. Eta Euliskik azetau eutsen: Baietz. Baiña orretarako esan eutsen ekarteko berari an inguruan egozan okaanak, keixak, eta azurre euken frute guztiyek. Eta iru egunien egon zan jan okaana, jan keixe, ta jan ta jan. Lepa-otzarakadak jaten zittuen.

Eta preparau zan durangarrak etozenerako bera an Irurldekue esaten deuten lekuko kamiñuen. Eta durangarrak andik aurrera eguen

Errota esaten deutesen lekuen bera etorri biar eben. Eta an eguen Euliski zai noz argittu durangarrak goittik bera. Eta durangorrok asi zienien mordo andiye, erdiyek inguru edo gitxi gorabera, asi zan Euliski zai noz argittuko durangarrak goittik bera. Eta durangarrok asi zienien mordo andiye, erdiyek inguru edo gitxi gorabera, asi zan Euliski bere agotik, berak barruen eukezan azurrek ametralladorak balire biño be indar andiyagoaz eta zorrotzago botaten. Eta durangarrak, erdiyak baiño geiago bertan ilte itxitten zittuen. Eta bestiak, bizirik geratu zirenak, jun ziren atzera Durangora.

Eta gero markiñarrak orduen iru idi narrukada emon birrien, bat emon eutsen, idi narrukada bt. Eta esan eutsen: 'Konforme zaz orrezag?'. Eta: 'Bai, conforme naa'. Artu ta bota beran lepora esku bataaz, eta jun zan atzera elizondoko zelaira, bera lenago egoten zan lekure."

Ipuin biak Markinaldean batu ziren bata Barinagan eta bestea Urberoagan baina kasu bietan Markinako auzo bitan. Ipuinok (zehatzago esan esaundok) batu ziren garaiari bagagozkio berrogei urteko tartearekin bildu ziren, lehena 1925an argitaratu zen eta bigarrena 1965an.

Kasu bietan izen bera dugu Euliski eta bietan esaten da zergatik deitzen den horrela, euli hitzarekin zerikusia duelako, alegia (24).

Erraldoi edo jentila zer nolakoa den neurritz edo kaizuz jakiteko hainbat argigarri ematen dira:

A lehen ipuina)

"Euliski selako burue euken ondo agiride burue Xemeingo Elixako orrmonduen etsunde goiko bentanatik begi batas abadie ikustebalako mesie entsun gure banien."

B bigarren ipuina)

"Ta mezie be entzuten eban zutunik plantaute. Bentanie baiño gorago, andiyague zan, eta etzunde be eguela bentanatik ikusten eban altarie, ta andixik entzuten eban mezie."

(24) Juan Gorostiagaren ustea irmoagoa dela dirudi, hau da badirudi Eulizki curi hitzetik datorrela eul- konposioan ikus Mitxelena *F.H.V.* 16.7. puntua 317or. dena dela eulizki hitza Azkuek dakarrenez: Euliosto (Gc,...), Eulizki (B-g-i, G-bid), elorri (B-a-mañ), moaquero, émouchoir. = Consiste, en B, en una rama con que se las ahuyenta, En G-bid, son hojas de helecho cubiertas de cierta substancia. Según Araquistain, EULIZKI es un instrumento con dos tablillas entre las cuales se matan las moscas.

Gaur egun Markinaldean eulizki hitza adjetiboa dugu, pertsona geldi, ketū (geure adieran) tentel. Erdarazko papanatas hitzaren antzekoa. Esan dezadan bide batez ipuin hau berriz era biltzeko ibili naizenetan ez dudala bildu. Bein Zipriano Bilbao, Axpe baserrikoak esan zidan Eulizki ipuinetako pertsonaien izena zela nolabait esateko edozein pertsonaiari esaten zaion izena. Horrek adieraziko luke erraldoi ipuinak ugari izan direla Markinaldean? Gerian baserritar batek esan zidan hanka altxatu eta burua estaltzen zuen kontua entzuna zuela baina ez zuen gehiagorik akorduan.

Lehen kasuan etzunda dagoela gauza da meza entzuteko, bigarre-
nean ostera zutik egon behar du.

Badira handitasunaren beste hainbat ezaugarri baina hemen ez dugu
denak aipatzeko astirik.

Badirudi neurri batzuk handitu egiten direla eta beste batzuk txikitu,
esaterako, jentilaren saria durangarrak uxatzearren bi idi larru bete urre
da lehenean eta bigarreanean hiru idi larru baina ipuina bere osoan eta
betean zaintzen da.

Badago beharbada datu interesgarriago bat bigarren ipuinean hezu-
rrak jaurtitzen dituenean ahoz matrelleta baten moduan jaurtitzen ditue-
la. Jakina, berrogei urteko tartea hizkuntzan ere agertzen da.

Bietan erraldoia ona eta mezarakoa da, meza entzuten du lurtean
etzunda dagoela, hain du buru handia!

Ipuin idatziak biltzekotan kontuan eduki behar ipuinliburuetatik kan-
pora, aldizkarietan sakabanatuak daudela hainbeste ipuin eta herri hone-
tan hainbat aldizkari dagoenez aldizkari batzuk beste batzuk baino ipuin-
tsuagoak dira, nolabait esateko. Ipuina orokorrean eta batez ere Bizkaiko
ipuina aurkitzeko aldizkaririk aberatsena *Anuario de la Sociedad de Eusko
Folklore* da. Aldizkari honetan On Jose Miguel Barandiaranek bildutako
ipuinez ostean hainbat gehiago ikus daitezke. Aldizkari honen aurkibidea
RIEV, 1988, 97-117orrietan dago hona hemen zenbait ipuin:

GURIDI, Leonardo de:

– *Leyendas. Oñate*: “Correrías de la dama de Amboto”, I, 1921,
89-90or.

– “Torre-auzoko zubia. El Puente de Torre Auzo”. *Leyendas Oñate*,
I, 1921, 91-92or.

IZPITZUA, Tiburcio de:

– *Leyendas. Larrabetzua*: Kastrejana’ko subie. El puente de Castreja-
na, I, 1921, 92-94or.

– *Creencias y ritos funerarios en Bedia*, III, 192313-22.

ZAMALLOA, Felix de:

– *Leyendas. Amorebieta*: “El puente de Castresana”, I, 1921, 94-95
or.

– *Leyendas. Amorebieta*. “Las lamiñas”, I, 1921, 96or.

– *Cuentos. Amorebieta (Vizcaya)*, I, 1921, 107-108or.

BENGOA, León:

– *Cuentos. Berriz*, I, 1921, 109-110or.

Bizkaiko ipuinez dagokienez aldizkaririk oparoena *Etniker-Bizkaia* dugu:

ETNIKER 2

– ETXEBARRIA, J. Manuel: MANTEROLA, Ander: “Jentillak dirala ta”, 61-65or.

– ERKOREKA, Anton: “Begizkune”, 35-47or.

ETNIKER 3

– GOROSTIZA, J. K.: “Lamiñak, jentillek eta Anbotoko Señorie (Arrazola)”, 106-112 or.

– ETXEBARRIA, J. Manuel: MANTEROLA, Ander: “Gorbei Inguruko ipuiñak eta esaundak”, 112-122or.

ETNIKER 4

– ETXEBARRIA, J. Manuel: MANTEROLA, Ander: “Gorbeia inguruko ipuiñak eta esaundak (jarraipena)”, 65-69or.

ETNIKER 5

– ETXEBARRIA: “Zeberioke ipuinak eta esaundak”, 59-75or.

ETNIKER 6

– ETXEBARRIA, J. M.: “Anbotoko Señorearen Sorrera”, 143-145or.

– ETXEBARRIA, Juan Manuel: “Gorbei inguruko esaundak III”, 143-163or.

ETNIKER 8

– BARANDIARANGO, Joxemiel: “Esaundak, sinismenak eta Mitoak Bizkaiko mendietan”, 11-19or.

– ETXEBARRIA, Jose M.: “Zornotzako sineskerak eta ipuinak”, 165-185 or.

– ETXEBARRIA, Juan Manuel: “Gorbea inguruko esaundak (IV)” 185-197or.

ETNIKER BIZKAIA 9

– ETXEBARRIA, José Ma.: “Las grabaciones en euskera de la Fonoteca de Viena. Cuentos y anécdotas en dialecto vizcaino”, 187-205or.

Bermeo aldizkaria ere aberatsa da bertako ipuinetan. Lehen aldizkarian 1981urtean bibliografia zabal bat dakar Bermeoko ipuin, kontu zahar eta mitologiaren gainean ikus. 61or. Horrezaz landa:

BERMEO

– UETENA taldeak: “Bermeoko arrantzaleen ohiturak sineskerak eta seneskeria”, *Bermeo I*, 1981, 263-449 batez ere 332-348or.

– AGIRREAZKUENAGA, Joseba: “Busturiko ipuin zahar bi”, *Bermeo I*, 1981, 357-358or.

– BARANDIARANGO, Joxemi: “Itsasoan ohointzun eta arrantzun”, *Bermeo I*, 1981, 353-356or.

Aranzazu aldizkarian:

VILLASANTE, Luis:

“Euskaldun-erriak AULESTIA”, Marzo, 1959, 68-70or.

Hiru ipuin agertzen dira: bi laminenak eta bat sorginena.

“Arantzazuko artzaiaren bildotsa”, 1962, 347or.

Magnetofoi bidez hartutako ipuina. Ipuin ezaguna Bizkaian.

“Euliski”, 1965 22 (374)-23 (375)or.

VILLASANTE, Luis eta IBARROLA'TAR Teri.:

Euskalerriko ipuiñak sailean.

“Erbi jakituna”, 1965, 23 (87)-25 (89)or.

Peru eta Mari(j)(a)ren ipuina Ibarrola'tar Terik Kontatua.

“1. Laminiena. 2. Peru eta Marixena”, 1964, 10-11or.

Bi ipuin dira guztira bata lamina-ipuina eta bestea garbi agertzen danez Peru eta Mari(j)ana.

“Peru eta Marixe”, Ibarrola'tar Terik kontatua, 1964, 23 (54)or.

“Azeriye ta otsue”, Noviembre, 1968, 23 (311)-24 (321)or.

GOROSTIZA, Juan Kruz: *Idazkera* Labairu Ikastegia, Bilbao, 1981.

1. Gernika inguretako euskera.

1.1. Astoa, txakurra, katua eta oillarra (Nabarniz-en ahoz batutako ipuiña).

1.2. Auzoko sorgiña (Nabarnizen baturikoa).

1.3. Astoa ta txarria.

1.4. Amerikanuaren zorra (Muxikan baturikoa).

2. Bermeon bertako euskeraz baturiko ipuin eta pasadizuak.

- 2.1. Andra sorgiña.
- 2.2. Aldeanue lapurretan.

3. Durangoaldeko euskeraz baturikoak.

- 3.1. Iru alabak.
- 3.2. Peru eta Marije.

Elorrioko euskeraz kontaturik lehenagoko goraberak.

- 4.1. Erromeriak zelan izaten zirean lehenago.
- 4.2. Dantzak zelan izaten zirean.
- 4.3. Meza nagusia dala ta.

5. Ondarruko euskeran baturiko ipuin- pasadizuak.

- 5.1. Leokadiren ipuiña.
- 5.2. Santander aldean jazotakoa.

6. Berrituko euskeran baturiko pasadizua.

- 6.1. Berritxuko sakristaue.

7. Lekeitioko euskeraz jasoriko ipuin-pasadizuak.

- 7.1. Peru ta Marija.
- 7.2. Loritoa.
- 7.3. Aittitta makurra.
- 7.4. Juan Arrantzalia.
- 7.5. "Askotxu" Lapurra.
- 7.6. Mesara jjuaten ez sana.
- 7.7. Baserritar bildurbakoa.

8. Arratia aldeko euskeran batutako ipuin eta esaundak.

- 8.1. Gison bat penitentzie betetan Supileor-en.
- 8.2. Bustinsuriko alabea eta basayaune.
- 8.3. Iturriako etzanderean eta lamiñea.
- 8.4. Jentilek eta kanpai-otza.

9. Txorierri aldeko euskeraz baturikoa.

10. Uribe aldeko euskeraz baturiko kontakizunak

- 10.1. Santa Mariñera.
- 10.2. Santa Agueda ingurua Sopelan eta Urdulizen.

HOLMER, NILS M.: ABRAHAMSON DE HOLMER, VANIA.

"Apuntes vizcainos II: Textos en transcripción fonética", *Anuario del Seminario de Filología Vasca*, 1969, III, 1971-228.

Hemen badira ipuin asko:

- “Los tres consejos”.
- “El huevo bonito”.
- “La luz mágica”.
- “La vaca de Kontxo”.
- “La bruja que se convirtió en gato”.
- “Los pintores en casa del doctor”.
- “Cómo la luna tuvo sus manchas”.
- “Iru argiak”
- “La candela de Fica”.
- “Txoriakaz berbetan zekien mutilla”.
- “Gizon zar baten ipuina”.
- “Bei baltza”.
- “Txakur baltza”.
- “Purgatorioko arimen usiñe”.
- “Bilboko albañilak”.
- “Inazio eta amabi zaldiak”.
- “Pastorea eta erlojua”.
- “El cuento del cura y el criado”.
- “Mutil tonto bat”.
- “Simon eta Pedro Santua”.
- “San Martineko zubia”.
- “Anaye eta ama zarrak”.
- “Txistulari biak”.
- “Artiketa'ko mutilla”.
- “Neskatille ederra”.
- “Foral biak”.

Ondorio gisa esan dezakegu, Azkuek eta Barandianek bildu zituzten ipuinetatik kanpora Bizkaian eta bestetan ez dela ipuin gehiegirik bildu, dena dela han, hor, hemen sakabanaturik daude uste baino gehiago. Nahitaezkoa da esatea Barandiaranek eskola bat sortu duela eta horren ondorioak dira esaterako Etniker Bizkaian Ander Manterolaren zuzendaritzapean eta itzalpean argitaratzen diren hainbat ipuin eta etnografia lan. Bizkaian esan dezakegu ipuin biltzaile, besteak beste agertzen direla Anton Erkoreka eta Juan Manuel Etxebarria. Anton Erkorekak ipuinen gainean sistematizazio lan handia dauka *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* aldizkarian VIII (1976) 309-365, X (1978) 451-491 eta XI (1979) 65-124orr., horrezaz gainera *Contribución al atlas de Euskalerría*. Investigaciones en Bizkaia y Gipuzkoa. Etnografía de Bermeo. Leyendas, Cuentos y Supersticiones, 206-304or. Esan dezakegu Juan Manuel Etxeberriak Gorbea inguruko ipuin, esaunda, elezaharrak bildu dituen bezalaxe Anton Erkorekak Sollube inguruko ipuinak, esaundak, elezaharrak esaerak eta abar bildu dituela. Hala ere uste dugu Bizkaian badagoe-la oraindik beste ingururik aztertzeke eta hil edo biziko kontua da lehen bait lehen gelditzen den ipuin altxorra batzea.

LABURPENA

Lantxo honen helburua Bizkaiko herri-ipuinen berri ematea izan da, eta horretarako Bizkaiko ipuin mota edo ipuin sail baten berri eman dugu: Peru eta Mariaren ipuinak. Herri-ipuin idatziak biltzeko ohizko bibliografiatik gainera, esaterako, Jon Bilbaoren *Leyendas y cuentos* sailean agertzen direnak, nahitaezkoa da hizkuntza aztertzen den liburu eta lanetara jotzea, esaterako, *Plentzia Azterlanak-Estudios* lanean Iñaki Bengoetxeak hogeitahamabost kontakizun labur dakartza Plentziako euskararen bilduak, eraberean, aurki argitaratuko den Iñaki Gaminderen Abadiñoako euskera lanean bospasei ipuin ere agertzen dira. Candido Izagirreraren lanetan hizkuntza deskripzioa ezeze ipuinak, kantak, esaerak, papaitak ere agertzen dira. Geure lantxoak Bizkaiko eremura mugatua egonagatik ez dugu aipatu esaterako Oñatiko euskararen gainean egindako lanetan Candido Izagirrek, Bitoriano Gandiagak eta Aita Villasantek bildu ipuinak. Gure lantxo hau lur esparru bateko ipuinen berri ematea izan da, ez Bizkaiko euskerari dagozkionak. Azkenik esan behar dugu, bilduak bildu, lan handia dagoela egiteko, eta, premiazko lana, behin-behinekoa, hil edo bizikoa dagoen altxorra batzea da, ipuinak aztertzea baino areago. Behin bilduz gero azter daitezke eskola desberdinetako lan sistimak aplikatuz, baina laster biltzen ez badugu geratzen zaigun altxor murriztu hau, gureak egin du. Ez gaitzke bertan goxo geldi.